



ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA

Elikadurako eta Landa Garapeneko
Saiburuordetza
Landa Garapenaren eta Europar
Politiken Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA
Y PESCA

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Desarrollo Rural y Políticas
Europeas

EBAZPENA, LANDA GARAPENAREN ETA EUROPAR POLITIKEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ LUZATU EGITEN BAITA LEADER 2026 PROGRAMA ARAUTZEN DUEN "LANDA EREMUEK GARAPENAREN AURRERAPENERAKO MENDINET ELKARTEA" TOKIKO EKINTZA TALDEAREN DEIALDIAREN 4. ATALEAN AURREIKUSITAKO EPEA

2026ko apirilaren 16an, MENDINETen web-orrian argitaratu zen 2026ko ekitaldirako PEPAC 2023-2027ren esparruan onartutako LEADER eremuko landa-udalerrien sustapen, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako dirulaguntzen deialdia

Deialdiko oniarrien 4. idatz-zatiak, onuradun izateko bete behar diren betekizunen artean, honako hau jasotzen du:

Eskaeraren xede den gastua eta/edo inbertsioa amaituta ez egotea eskaera aurkeztu den unean. II. eta IV. neurrietako «inbertsio/gastuen» kasuan, in situ ikuskapen baten bidez egiaztatuko da egoera. Ikuskapena 15 egun balioduneko epean egingo da gehienez ere, laguntza eskaera sartzen den egunetik kontatzen hasita, eta Kontrol Akta bat bidaliko da horretarako, inbertsioak abiarazi ez direla ziurtatzeko.

Lekuan bertan egindako ikuskapen bisual baten bidez ikusi ezin diren gastuen kasuan, alderdi horiek justifikazioa egiten den unean faktura bidez egiaztatuko dira. Espedientean jaso beharko dira laguntza eskaera aurkeztu ondorengo data daukan gastuaren egiaztagiria.

Aipatutako hamabost eguneko epea luzatu ahal izango da, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariaren ebazpen baten bidez, salbuespenez, eskaera-bolumenaren eta zerbitzuaren beharren arabera.

Aurkeztutako eskaera-bolumena ikusita, 350 eskaera, horietako gehienak horretarako epearen azken egunean aurkeztu direla kontuan hartuta (2026ko apirilaren 17tik maiatzaren 18ra bitartekoa zen) eta langile faltaren ondorioz eta langile berrien esperientziarik ezaren ondorioz

Honako hau

EBAZTEN DUT:

Handitzea xedatutako epea, 2026ko ekainaren 17ra arte, azken egun hori barne

Vitoria-Gasteiz,

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 019 693 – e-mail: desrural-dec@euskadi.eus





JOSEBA TERREROS LUENGAS.
Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendaria